

GAZTERIA

Indarra artzen ari da gazteria lurbira oosan.

Lehenago, zenbait pentsaera, jokabide eta biziera nardaturik mundu berri bat amesten du. "Gazte gera gazte, ez gaude konforme, mundu berriago bat egin nahi genduke" abesten du ez-tarria urratu eta birrikak nekatzeraio.

Izan ere bidegabekeriz, desberdintasunez, leturaz, jauntxo-keriz, diru-gosez eta zapalketaz betetako gizarte bat ezagutu du. Ezagueraren begiak zabaldu dituan bezain mundu aldrebes batean bizi dala jabetu da. Eta ontaz jabetzen ez dana oraindik aurtzaroko lo gozoan dago edo mundu aldrebes onen mufiean fteraturik arkitzen da. Ume aundi bat edo gazte zahar bat egiñik dago.

Orregatik mundu berri obeago bat irrikatzen badugu, gazteria zaitu, argitu, zuzendu eta indartu behar du.

Giza-indar aundia dago Euskalerrian. Jende asko pillatu eta ugaritu da, gazte-jendea batipat. Inon bada-ta ementxe zaitu behar dugula uste dut gazteria. Laixter gazterei orren eskuetan izango dira irakaskintza, agintea, gidaritzza, kultura, izkuntza eta abar.

Gaurko gazteen esku dago Euskalerrian etorkizuna. Nolako gazteria, alako Euskalerria.

Aundia da benetan elduon erantzunkizuna!

Zenbateraino keskatzen eta arduratzen gera gaurko gazte auekin? Ez ote gera gazteriar langak eta esiak ipintzen gehiegi arlotzen? Zenbateraino laguntzen diogu bakoitzari bere doiak lantzen, bere burua argitzen, bere biotza sendotzen, nortasun eta askatasun eldu batera iritxi dedin?

Uxa arazten ahal diogu txikitandik, eskolan eta etxean, artu zuan erdal-giro eta aberas-grina ori? Ari ahal gera eskal-zale-tasun eta berdintasun-irrika eraiten eta ernaritzen? Zenbateraino gertutzen dugu mundu aldrebes onen aurka burrukan egin dezan?

Nora goaz jan eta edan, ibilli eta jolastu, jantzi eta apaindu beste ametsik ez duan gazteriar arin batekin? Erdal eta diru-jauntxokeri baten apian, aizez eta ergekeriz betetako txori-izugarri bat besterik ez da izango. Gizarteko zurrumbiltoetan galdutako zerbit besterik ez dugu izango. Aundi-maundiak esaten eta egiten duten guzia esanaz eta egin nahian dabillen zer-bit parregarria, nortasunik gabea, izanen dugu.

Nahi ahal dugu Euskalerrian irautea? Egin dezagun, gazteria, eskuzale. Azi dezagun eskal-giroan. Txerta dezagun eskal-arnasa.

Nahi ahal dugu eskal-gizarte berdinago bat? Sutu dezagun desberdintasun guzian aurka. Erakus giza-erubideenganako begirunea. Eragin dezagun berdintasunaren aldeko burrukara. Ezi dezagun askatasunerako.

Egin dezagun nor. Egin dezagun aske eta bere buruaren jabe.

EZITA EREIN GAZTEAK BEREN ARTEAN

Maizena, multzoka ibiltzen dira gazteak beren artean. Ala ikusten ditugu ingandetan, enparantza ertze-tan, bidekruzetan, edantokietan edo dentzan.

Sarritan elkarrekin parra egiteko besterik ezterako ez dira biltzen. Zenbaitetan arrokeriaz jota daude, ezin egonki toki batean, bazterrek naasten. Esan bearra dago ere, beste askotan mututa egoten dirala gure gazteak. Itz batzuk bai, parra ere bai, baiña asmoak azaltzeko gauza ez dira.

Gure euskal gazteak ba al dakite areman jatorrik eukitzen? Elkar-iz-keta sakontera jotzen al dute? Edo galduta bezala dabilit? Betikoa, talde txiki batzuk elkarizketan ba dakite baiña, geienak, galduta be-zala dabilit.

Ba dira esango didatenak: «bide-rik ez daukate bear dan bezala min-tzatze». Besteak auxe diote; «ba-serritarrek bakardadean bizi dira, mututa bezala dabilit. Lantegietan daudenak gauza bat bakarrik nai dute; etxera joan, aldatu ta atsedan aldi bat lasai artu. Orduan gure gaztea, lanetik atsedan bizi dira».

Gazte geienentzat pekatu astuna auxe da: ez dirala bear dan bezala mintzatzen. Ortan arrazoi zuen neska gazte batek esan zuenen: «Ajo-lagabe asko dago gure artean eta orduan ezin diteke bear dan are-manik». Beste batek ala zion: «Ez gera aalegintzen. Gazte gera gazte esaten degu gure artean, eta gero besten asmoak ez ditugu ezagut-zen, bestea aldamentean ikusi ezin degulako».

Elkarrekin gutxi mintzatzen ba di-ra orduan zertaroko bildu, dio zen-baitak. Gazte bilerak txorakeriak bezala artzen dituzte gazte geien-txuenek; jakin ba dirala ta parra egin.

Aukeratzen ditugun euskal gaz-

teak ere, bilerarik, elkar-aremanik nai ez dituztenak aukeratzen ditugu, buru austerik gabe lasaia go bi-zitzeko. Beste batzuek biltzen dira bai, baiñan artu-eman ariñetan jar-duten dira.

Geienak, elkarrekin biltzea dira bai, baiña jai egiteko, jola-esteko, lasaitzeko. Emen eta an, mendian ta ondartzan, gazteak el-kartzten dira baiña... ara zer zion bein batek, «beste gazteekin, izan ditugu aremanak, baiña ez errizale ta euskaltzale bezala, mendigoizale bezala baizik».

Gauzak ez dira or utzi bear. Eus-kaldun gazteak beren artean bildu egin bear dira ta ez erraxkerietara jotzeko, areman sakonak izateko baizik, elkarrekin beti zozter ikas-teko, bide berriak irekitzeko, elkar ezagutzeko.

Aremanak, elkarriketak, ekintza bererik osatzeko, egin bear dan leen gauza, euskal gazteak biltzea da. Bilerak ezin ditezke bakarrik aremanetan galditu, ekintzetara jo bearra dago. Ta ekintzak ezin dira goitik beara jarri. Gazteak beren artean aukeratu bear dituzte. Oso gauza txikietatik asi ta gero ta au-rrerago joateko. Or dago gizona osatzeko bidea. Ekintzak gazteen arteki jai bear dute. Badituzte be-ren asmoak, gogak, naiak, ametsak. Ortik asi ibiltzen eta lanegin. Gau-zarik txikiak garrantzi aundia izan dezake. Bear dana da lanean astea.

Gazteen elkarrekiko aremanak ez dituzela ekintzetan buka. Ekintza guztiak aztertzea, bearezkoa deri-zagu. Ekintzaren azterketa sakonak asko erakusten du. Denen asmoak jeso bear dira ta ondo neurtu. Antxe agertuko dira alderdi onak eta txar-riak. Gerorako bideak garbi beldi-zen dira. Azterketaren bidez ekint-zaren bearra nabaritzen da, eta orrek erakusten die gazteei zein ongarri ta bearezkoa dan azterke-ta, eziketa on bat egiteko. Orra garbi esan: ezta ekintza txiki-rik, txiki ori zuzen eginik danean!

Ekintzetan asteko galdera? bati eutsi bear zaio: «Gure erriak edo Euskalerrian gure bearrak bai al du?». Nola lagunduko ote genioke? Galdera oietatik sortuko dira as-moak, naiak ugariak. Gero zer egin bear dan erabakitzen danean, beste galdera batzuk egin bear dira: «Bes-ten bearrak ba al degu ala ez?»

Gazteak elkarturik oso aurrera joan ditezke. Bakarka ez dira zez-terako.

Euskal gazteentzat gaurko oiaa auxe da: «Leendabizi bildu, gero areman bererik izan, ekintzetara jo... ta aurrera».

LATXAGA

IFERNUA GEU GERA

Churchillek bein esana: «ONU ez da gizadia Paradisuan sartzeko, baizik ifernuan ez-erortzeko».

Ifernua, antza, URSS eta USA arteko gera bat izango zan, baiña ez ONU-k geldierazi ez dituen Viet-nam, Jordania edo Biafran ikusi diran? burruka odotsuak, aingbeste Biafran eta aingbeste Hungriatan sufritutako giza-ilketa lotsagarriak. Bertan bizituei galdegin behar; oietek jai Ifernu ote ziran ala Pa-radisua ziran.

Sartre filosofoak liburu asko du egiñik. Mundu zabalean barna ahoz aho dabilta bere esan pozoidun iraulgarriak. Adibidez: «Bizia absurdo bat da». «Askatasuna ere ab-surdoa da, ez onirik ez gaizkirik ez dago-ta». «Paradisua betiko gai-du zan». «Gizona, alferreko grina». «Ifernua besteak dira».

«Ifernua besteak dira». Itz auek ba dute gat, ba dute mami sakon. «Bestek» nere, gure, zuen ondoan dabilzan dira. Auzokoak, aurre-koak, kalekoak eta baserrikoak, errikoak eta kanpokoak, dendarri ori, eskale ori, nagusi ori.

Nere nortasunari, nere askatasu-nari nere nahie esiak, oztokop ipintzen dizkietanak. Eta ni berdin gertatzen naiz besteentzat. Ni bes-teentzat, ifernu. Nitasunik ta zuen-dasunik elkarren aurka jotzen dute. Elkarrekiko oiaize-iturria ondatzile-gera. Ifernu gera, Sartre-ren iritzian.

Sartre-k ortaz bere nazka aget-zen du, protesta, salaketa minkai-tza. Sasigizarte onen aurrean gog-orki altxatzen da. Ez bait du isi-lik egin nahi. Egiako elkartasun-ik ez dakus. Gutxiago maitasunik. Munduan gosea, gorrotoa, gera pa-rrastaka daude kristau izeneko kris-tau izandako errialdeetan, eta beste tokitan ere bai, gezur-kristau jen-deei esker.

Jokabide ortan egia-puska ba da-go noski. Nola uka? Eta emen zer-txobait aipatu beharra arkitzen du. Gauza arrigarria gertatu oi zaigu ba maiz asko, izimodua nola da-goen ba dakigu. Ezerk ez gaitu izu-zen. Denetara jarrita gaude. Salda lohitu ontan egositza bezala. Bai-ña oien laurdenik zinean ikusi edo liburutuan irakurriz gero... ai or-duan! Orduan arritzen gera, orduan izaten dira eskandaloko. «Jainko maitea, zholatan uzten ote dituzte lotsagabekeriak jartzen?».

Orra ba Sartreren eserakin ger-tatzen dena. Beren egia ala gezu-rra aztertu ordea, arrazoiki nahas-ten ditugu. «Ez luke ola behar», esaten dugu. Konturatu gabe, edo konturatu, «dena» ta «behar lu-keena» batera dantatzen ditugu: erreallitatea ta etika, egintzak eta morala, ohiturak eta goi-legea.

François Perroux ekonomilariari onenean beste orrenbesteko ger-tatu zaio Sartreri erantzunez-edo idatzi duenean: «Ifernua ez dira besteak. Lagun, kide, lankide dira bizi-aremanetan».

Sartrek gertatzen dena adierazten du gehienbat. Perroux-ek, aldez, ger-tatu behar lukeena. Nori berea du zuzenbidea. Zuzen daude biok, ba-koitza bere aldetik. Baiña ua be-hintzat garbi bego: guretzat lurral-di au aradisu epel edo zeri urdu eta besteentzat negar-erri edo mal-ko-ibar izan nahia ez da posible. Ortara gizadi guzientzat bukaera bat besterik ez da izango: denent-zat Ifernua, ONU-kin eta gabe. Erriek eta erriartek igualdadea be-har dutelako.

I. BUJANDA

ZIFRA BATZUK

Joan den Urrian, beste urtetan bezala. Bichat-eko Elkarriketak izan dira. Eta oso dato gozangarriak aipatu ditu prentsak. Oso kontutan hartzeokak, batez ere, gizonak jasaten dituen gazteak eta zanpaketa-nolakoak diren garbi ikusteko. Sexotasunari buruz orain dela urte gutxi arte tente egin ziren he-siak gaur eroriak direla idatziz ez dugu inor harrituko: hori gaiza aeg-ria zaigu denoi.

Zifrak mintzo direlarik, ordea, nar-barmenago agertzen bide da ego-eraren kakoa eta nolatasuna.

Estatistikek erakusten dutenez, Ameriketako USA-n gizakiaren erit-asun bakteriatasuetan lehendabizi-koa blenorragia da. Hain da zabalga gaitzaren kontra soluzio ba-karra txerto bat izango litzakeala. Izurrite-maila hartua du hiri-gisako puntu guzietan».

Ez USA-n bakarrik. Fraitintzen, esate baterako, 200.000 kaso ger-tatzen dira urtean. Britania Han-dian 1960-tik 1969-ra arte, %78 goititu da sexo-eritasun honen ko-purua.

Hauk eritasun bati dagozkion zi-frac izanik, sexoaren arazoak zure gizartea zertan den somatzen ez da zaila: aspaldiko hesi moralak funditu egin dira, gazteen artean batez ere.

Zein adinetan laxotasun hori? Honetan, behar bada, estatistikak her-agarriago zaizkigu. Pilura dela-ta, ikastoki guzietara zabaldu dira hesirik gabeko sexu-ohitura berriak; eta, neskei dagokienez (13 urtetatik 16-eterakoak) hauk dira osa-gi-leek eman dituzten zifrak. Sexo-askatasunik handiena Bretona-Han-dian dago: adin horretako ehun

neska ikasletarik 63-k izan dituzte sexo-lotura. Segidan Alemania da-ror (%60), gero Noruega (%54), gero USA (%47). Oso neska gaz-terei buruz ari garela ez ahantz. Mutilei buruz ez dut datorik ikus-ten, baina gorago jo beharra le-geokela bistan da.

Hots, soziologiari batek ongi esa-ten duenez, hau ez da harritzekoa, gizarte guzian egiten den propa-gandak «banalizatu» bait du sexo-lotura.

Baina sexotasuna erotismorik ga-be ez bait da gizonaren betegarri, eta ez gutxiagorik ere, sexo-laxo-tasun honek, erotismoa hilez eta pornografi hutsera bultzatuz (gaur ideki da Alemaniako aurtengo biga-rreraren pornografi-erakusketan... Ale-manian bakarrik hau), sakondu egi-tzen du gazteriarren hutsunea; eta lehen erotismoa gizarte batek eli-katzen zuen lilura erazuzi, gazta-roaren lilura nagusia erazuzi duela iruditzen zait.

Morfina, heroina, LSD, eta gai-nerako drogak, horretara, gero eta maizago erabiltzen dira; eta, era berean, gazteek darabilzute gehie-nik, ez helduek. Ottavioli-ren Txos-tenak orain dela hilabete batzuk erakutsi zuenez, toxikomanoetan %-eko 90-ek 30 urte baino gutxiago dute (21 urte baino gutxiago, ka-soetatik %40-ek). Eta hau zion: «Ez milieus scolaire ou étudiant se trouve aujourd'hui davantage atteint par la toxicomanie».

Nagusiek aski dute beren ogi-bidearekin. «Omen» hau ere, or-dea: ezen Georges Friedmann so-zio-logiariak dionez, gizon moder-noak ez du astia maite; eta asko-tan, herririk aurreratuenetan, ez di-

ru-beharrez baina bere buruarekin bakartasunean ez gertatzeko, biga-rrer lan bat hartzen dut. Zerbaite-tan «hala-beharrez» ari delarik, ez du ezertan pentsatzen, eta lasai dago. Baina, libro delarik, pentsa-tzea gertatzen zaio; eta hauxe na-hi ez, USA-n garbi agertzen hasi den bezala...»

Gauza bera gazterian. Itxuraz be-deren libroago delarik, inoiz baino aurrerago joan bide da gizartearen kontrako bere ukarera. «Gauchis-me» delakoa dugu ukareraen aur-pegi bat; «hippy»-ismoa da bestea. Lehenengoan oraindik ba dago mun-du honekiko esperantza bat; bi-garrenean barkatu haieten bezalaxe.

Gazteria ez da, beraz, batzuek ikus-arazi nahi ditugun zoro mul-tzoa, axalez irribarre eta barnez zoriortsu. Gazteak nagusiak baino kezkatuago eta tristeago bizi dira askotan. Nagusiek etsi egin dute, eta ohitu egin dira. Gazteek ez be-ti. Ez askotan.

Eta hauxe da gogorena. Pertso-na helduetan Europar heriotza-bi-deetan suizidioa laugarren herio-tza-saila den bezala, gazterian... he-riotza-iturri nagusia suizidioa dal Hesirik gabeko gazteria horrek bere buruz beste egiten du inoiz baino maizako! Suezia-ko soziedadekek sui-zidio-mailarik gorena ematen duen bezalatsu.

Zer adierazten du honek guziak? Ez dakit.

Baina gizonaren liberazioa zer ote den ez da batere xinpelki aget-zen zifra bildurgarri hauetan.

LARRESORO

ARGIA

Zuzendaria:
**MIREN JONE AZURZA
ARISTEGIETA**

Argitaratzailea:
Nafarroako-Kantauriko ta Aragoiko Kaputxinoak. (Mayora, 50-1.-Burlada Pamploana).

DONOSTIAN:
Oquendo, 22 - Tel. 26666.

